



Andoaingo Udala

Andoaingo Udala

Zk./ Nº 2026/1610

Data / Fecha 2026/06/09

Ebazpena / Resolución

Alkatetzaren ebazpena

Alberto Agirre abesbatza elkarteak 2026ko apirilaren 24an aukezturiko dirulaguntza eskaera ikusirik, 2026. urteko bere kultur jarduerak aurrera eramateko.

Hezkuntza eta Kultura teknikariaren txostena ikusirik.

Ikusirik, udal Kontuhartzaileak egindako kontrako txostena.

Ikusirik, udal Idazkariak egindako kontrako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

ERABAKI DUT

1.- Onartzea, Andoaingo Udala eta Alberto Agirre abesbatza elkartearen artean proposatutako lankidetzak hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen.

Xedea: 2026rako antolatutako kultur jarduerak.

Dirulaguntza: 6.450€.

Partida: 1.0500.481.334.00.06.2026

Indarraldia: 2026-01-01tik 2026-12-31ra.

2.- Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ahalduari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3.- Alberto Agirre abesbatza elkarteari bidaltzea hitzarmena, Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ahalduak sinatuta.

4.- Onartutako dirukopuru honen %60a, hau da 3.870€ Alberto Agirre abesbatza elkarteari ordaintzea onartzea. Elkarteari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatirengatik jaso beharko luketen dirukopurutik deskontatuko da konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko dute.

5.- Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu ahal izateko, aipatu elkarteak 2027ko urtarrilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko dituela 2026ko jardueren memoria, likidazioa eta zurigarri guztiak.

6.- Kontuan izan behar dituzte sarrera eta gastuen balantzea ondo zerrendatuta eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoarekin aurkeztuko direla, eta Alberto Agirre abesbatza elkarteak sinatuta egon beharko dutela. Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da, eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa.

7.- Ebazpen hau Alberto Agirre abesbatza elkarteari eta Udal Kontuhartzaitza lantsailari helaraztea.



Andoaingo Udala

Hala agindu eta sinatu dut Andoainen, sinaduraren datan.

IDAZKARIA

ALKATEA



EKS | CSV: ESKU265386b6-7172-45dd-9985-ad3c0358ca17

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>